

Ordua iritsi dela sumatzen dut. Ez dakit ongi, ordea, zeren ordua iritsi den.

Hotz da beti lur umel honi hiltzaturik. Errealitatea inoiz baino gehiago neurrigabeko konplot kriminal bat dela sentitzen dut, amarru ergel eta iluna.

Zeruertza Espainian egunero hamar pertsona urkatzen dituen lokarria bilakatu da.

Ondasuna pilatzen den heinean miseria ere pilatzen da. Duintasuna deusezten da etengabeki biak nagusi diren neurrian.

Hitzak eta gauzak bereizi dira, ezerk ez dio ezer eta lehen ministro berri batek aurrekoaren itxura dauka polizi batek beste baten antza duen bezala. Ni bizirik naiz baina.

Garrasiz eginiko zurrumurru batek loturik gaituen hari musikala eteten du. Norbaitek hartuko du hitza. Guztiok garen norbaitek.

Alternatibarik dagoen ez dakit baina bidebanatze bat badela sumatzen dut. Ordua iritsi dela bidebanatze hortan gaudela esanahi du.

Egunez egun are eta indar gehiagoz sentitzen dut nire susmoak egia direla.